



## Argazki erakusketak ireki du Alurren Kultur Astea

**IBARRA** ▶ 1974tik 2005era arteko argazki esanguratsuak ikusgai daude egunotan Kultur Etxean

**JAIALDIA** ▶ Gaur eta bihar proiektzioa eskainiko dute, eta larunbatean jaialdi berezia ▶ 6

**TOLOSALDEA** ▶

**Lau istripu eta hildako bat izan dira asteburuan**

40 urteko motorzale tolosarra zendu da ▶ 3

### Ubareko etorkizunari buruzko bilerak erantzun ona jasotzen ari dira

**ZIZURKIL** ▶ Gaur egingo dute prozesuaren hirugarren bilera, eta auzoko barne urbanizazioa zehaztea izango dute xede ▶ 4

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** ▶

### Partida borrokatuan, Ligako lehena berdindu egin du Laskorain taldeak

Aurrera taldeari ere ihes egin zion partidak azken minutuetan, eta bana egin zuen Gazte Berriak-en aurka ▶ 2,7

HITZA



## GOIERRIKO HITZAren 1. URTEURREN FESTA

URRIAREN 8AN BEASAINGO PLAZAN



16:30ean  
TXILIBUTXOFen  
Tailerra

19:00etan  
AURTZAKA DANTZA TALDEA  
eta  
ZUHAITZAREN SOINUA  
Txalaparta

BERTSOLARIAK

22:00etan  
HARTU ARTE  
Rock taldea

10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik aurrera HITZAko MATERIAL SALMENTA

TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA

# Borrokaturako berdinketaz ekin dio Laskorainek Ligari

Egizabalen mutilek GSI Bilboren beheko taldea izan zuten aurrez aurre Bilbon; hiruna berdindu zuten neurketa, Saldiasen, Yustosen eta Telletxearen golei esker

**ERREDAKIZIOA**

Jokoan ipinitako hiru puntuetatik bat ekarri zuen Laskorainek Bilbotik Tolosara 2005-2006 denboraldiko estreinako jardunaldian. Horitxoez ohorezko mailako GSI Bilboren beheko taldeari egin zioten bisita, urtea joan urtea etorri maila taktiko eta tekniko handia eskaintzen duen talde gazteari, eta gogor egin behar izan zuten Tolosara esku hutsik ez bueltatzeko. Azkenean hiruna berdintzea lortu zuten «asko borrokaturako partidari».

Norgehiagoka hasiera izan zen, hain zuzen, gogorra. Eginiko bidaia korapilatsuagatik edo, ikastolakoak ez ziren edozein lehiaketatan premiazkoak suertatzen den arretarekin kantxaratu; lehen minutu horietan ez ziren batere fin ibili, eta menperatuak izan ziren nola jokoa nola markagailuan. Zortzigarren minuturako, eta tolosarren atzekaldeko huestegite nabarmenak probestu, 2 eta 0 ziren aurretik bilbotarrak, eta partidak kolore zurigorria zuen.

Laskoraindarrak, ordea, ez

ziren kokildu, eta partida oso aldapa gora izanagatik, ez zuten beraien burua behar baino gehiago estutu, eta hain bertute garrantzitsua den pazientziari eusten asmatu zuten. Honela, partidaren irakurketa zuzena egin, eta beraien jokoa burutzen hasi ziren, bilbotarrak adina behintzat bazirela aldarrikatu.

Saldias kapitainak sartu zuen bi eta batekoa, Yustos *Copperfield*-ek txisteratik ateratutako penalti bati esker; eta amaierarako lau minutu falta zirenean, roleak aldatu eta

Yustosek egin zuen binakoa Saldiasen jokaldia amaituz.

Garaipenaren ametsa gertu antzematen zenean baina, bilbotarrek 3 eta 2koa egin zuten, horitxoez berriro erreakzionatu behar izan zuten, 40 minututako lanak fruiturik jaso zezan. Telletxea areto futbol katedratikoa izan zen amaierarako minutu eskas falta zenean azken hiruak berdinketa sinatu zuena.

«Markagailuaren bilakaerari erreparatzen badiogu eta gaurkoan ate aurrean erakutsiriko punteri falta ahazten ez

badugu, berdinketarekin pozik egon behar dugula iruditzen zait», zioen beti bezain jakintsu, Javi delegatuak amaieran. «Ea datorren jardunaldian, Usabal polikiroldegan, iaz Euskal Ligako txapelkun atera zen Zierbena ahaltuari irabazten diogun berdinketa honi ere bali handiagoa emanaz».

Bilboko San Ignacio polikiroldegian Javi delegatua, Egizabal entrenatzailea eta Domente, Telletxea, Alonso, Saldias, Barriola —hasierako bostekoa— Yustos, Gil, Calixto —berriro Nazional Mailan— eta Amatriain jokalaririk izan ziren.

**Gazteak ere ederki**

Harrobiari dagokionean berri, Jorge Alonsok zuzentzen duen taldeak bikain ekin zion denboraldiari, 5 eta 4 irabaziz. Xabier Mateos Muruak prestatzen duenak, aldiz, hiruna berdindu zuen Tolargiren aurkako derbian.

**EMAITZAK ETA SAILKAPENAK ▶**

**ARETO FUTBOLA**

<b>Emakumezkoen Ohorezko Maila.</b>	5-4	Hegoalde Tolosa-Rioja Diamante	Mikel Lasa/Luis Angel Zubiri	22-7
<b>Nazional Maila A.</b>				
Arnedo-Ibarra	4-3	Zazpi Iturri 1-Aurrera-Saiaz		
<b>Nazional Maila B.</b>				
Xabier Telletxea/Koldo Galarraga	5-22			
<b>Emakumezkoen Senior Maila.</b>				
Idiazabal-Laskorain	4-5	Seniorkak		
<b>3. Maila B.</b>				
Laskorain-Tolargi	3-3	Aurrera-Saiaz-Kuku		
<b>Emakumezkoen seniorkak.</b>				
Tinta-Altzakokak	0-2	Garikoitz Galarraga		22-14
<b>1. Maila.</b>				
T. Lakuntza-Oiartzun	4-5	Aurrera-Saiaz-Bergara		

2. Beasain	13 puntu
3. Elgoibar	12 puntu
4. Gernika	11 puntu
<b>5. Tolosa</b>	<b>10 puntu</b>
6. Laudio Sall.	10 puntu
7. Arenas	10 puntu
8. UPV-EHU	10 puntu
9. Baskonia	9 puntu
10. Amorebieta	8 puntu
11. Lagun Onak	7 puntu
12. Zamudio	7 puntu
13. San Pedro	7 puntu
14. Eibar	6 puntu
15. Aurrera Vitoria	6 puntu
16. Aurrera O.	6 puntu
17. Santurtzi	5 puntu
18. Indautxu	4 puntu



Tolosak balizko garaipena eskuratu zuen etxean. I. GARCIA

**Sailkapena ▶**

<b>1. Inturre</b>	<b>6 puntu</b>
<b>2. Tolosa B</b>	<b>6 puntu</b>
3. La Salle	4 puntu
4. Ordizia B	4 puntu
<b>5. Amaro</b>	<b>4 puntu</b>
6. Lasarte-Oria	3 puntu
7. Munibe	3 puntu
8. Axular	3 puntu
9. Lazkao	1 puntu
<b>Jubenilen Nazional Maila.</b>	
Romo-Tolosa	0-0
<b>Jubenilen 1. Maila.</b>	
Bilabona-Hernani	1-6
Orioko-Inturre	1-0
Ekintza-Tolosa	8-2
<b>FUTBOL 7</b>	
<b>3. Maila D.</b>	
Caravanas Tolosa-Mendi kafe Rock	5-0
<b>1. Maila A.</b>	
Pub Oasis-Ibarrako	
Gazte Asanblada	3-6
Batapijan-Continental Industrias	2-2

**hitza**

# txokoa

*lagunen*

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beharapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratu dute

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

**Avalon**  
o s a g a i a k  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 24 30

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI KIROLAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

TOLOSA ▶

**Gerontologikoari buruzko bilera Kultur Etxean**

Gerontologikoaren Aldeko Plataformak berriz ere ekingo die, uda ostean, asteroko bilerei, eta gaur izango da horietako lehena, 19:30ean, Kultur Etxean, Tolosako Gerontologikoa itxi zutenetik gaurdaino, egoera berriaren berri emateko. Antolatzaileek deialdi irekia egin diete herritarrei bertan parte har dezaten.

TOLOSA ▶

**Kurtso hasierako gurasoen bilerak Hirukiden**

Hirukide ikastetxean ikasturte hasierako gurasoen bilerak ari dira egiten egunotan, eta gaurkoan bi izango dira: 17:30ean, Haur Hezkuntzako 4 urteko ikasleen gurasoek dute hitzordua Jesuitinetan, eta 18:30ean Lehen Hezkuntzako 5 mailako gurasoek, leku berean.

TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112)) Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
  - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
  - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
  - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
  - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
  - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
  - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
  - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
  - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
  - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
  - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
  - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
  - ▶ **Tolosa.**
    - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion Klinikak 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
  - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaeran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrarendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

EZBEHARRAK ▶

**Lau istripu eta hildako bat izan dira larunbat eta igandea bitartean**

40 urteko motozale tolosarra zendu zen igande goizaldean Lizartza parean; N-1 errepidean izan dira beste istripuak

IRATXE ETXEBESTE

Joan den asteburuak ez du berri onik utzi eskualdeko errepideetan. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo saileko iturrien arabera, guztira lau istripu izan dira Tolosaldeko errepide ezberdinetan, eta hildako bat eta hiru zauritu izan dira ezbehar horietan.

Lizartzan izan zen asteburu-ko lehen istripua; aurrea eta larriena. Izan ere, 40 urteko motozale tolosarra zendu zen larunbat gauean motorrez zihola. N-130 errepidean jazo zen ezbeharra goizeko bostak aldera. Kawasaki Ninja motako motorra errepidetik atera zen, eta zauri larriak eragin zizkion ibilgailua gidatzen ari zen gizon-ekoari. Ondorioz, istripua izan zuen lekuan bertan hil zen. Ertzaintzako kideen esanetan, motozalearen gorpua Donostiako Auzitegiko Patologia Zerbitzura eraman zuten epaileak hilotza altxatzeko baimena eman zunean. Bestalde, Ertzaintzak «beharreko izapi-

deak egiten diharduela» aitortu dute Herrizaingo sailetik, «oraindik argitu gabe baitago zerk eragin zuen istripua». Ezbeharren ondorioz, Tolosa eta Lizartza lotzen dituen N-130 errepideko zirkulazioa bideratu eta seinalizatu behar izan zuen Ertzaintzak.

Beste hiru zauritu igandean

Igandean beste bi istripu gertatu ziren eskualdeko eta inguruko errepideetan. Zehazki, N-1ean izan ziren gainerako ezbeharrak. 16:30ean, Gasteizerako norabidean zihoa Audi A-4 autoa bidetik atera zen Alegiako zerbitzugunearen parean, eta ibilgailua irauli

egin zen, errepide bazterrean buruz beheara geratuz. Auto horretan zihoa zen bi lagun zauritu ziren ezbehar horretan, eta Tolosako La Asuncion ospitalera eraman behar izan zituen anbulantziak, biek ala biek zitutzen zauriak artatzeko.

Ertzaintzako iturriek aipatu dutenez, La Asuncion erietxean beste pertsona bat ere artatu behar izan zuten herenegun, N-1 errepidean zihola, Itsasondo parean auto istripua izan zuelako. 14:00etan gertatu zen istripu hori. 21 urteko lagun bat zauritu zen, baina zauri arinak baino ez zituen izan.

Hamabost lagun zauritu ziren igandeko 18:30ak bitarte euskal errepideetan izandako hamabi istriputan. Horietako gehienak erietxera eraman behar izan zituzten larrialdi zerbitzuetako arduradunek. Bestalde, Ertzaintzak jakinarazi du «zirkulazio segurtasunaren aurkako delitua» egin izana egotzita hamabost gidari atxilotu dituela asteburuan Euskal Herriko errepideetan.

EZBEHARRAK

Lizartzan izan zen moto tolosarra zendu zen; hiru lagun artatu zituzten La Asuncionen

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheha  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-maila: ernio@inmoernio.com  
www.inmoernio.com

**Ikaztegieta.** Ebe atxikia salgai. Lorategi eguzkitsuarekin.

**Larraul.** Eraikuntza berriko ebe bifamiliarra. Zoragarria!

**Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 155.060 eurotik aurrera.

**Tolosa.** San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

**Tolosa.** Amaroiz auzoan 3 logelako etxebizitza salgai igogailuarekin. Guztiz berriua. Trastelekuarekin. Aukera paregabea!

**Tolosa.** Zezen-plazan. 87 m2-ko etxebizitza berritzeko igogailuarekin.

**Tolosa.** Erdialdean. Guztiz berriua. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Igogailuarekin eta berokuntzarekin. 306.517 euro.

**Tolosa.** Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!

**Tolosa.** Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi.

**Behean: garajea, komuna eta bokoa.**

**Tolosa.** Trinkete. 3 logela eta bi bainugela dituen etxebizitza salgai. Egongela ederra. Ezin hobeto!

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean 126m2-ko etxebizitza berriua, 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera, altua, berokuntzarekin. Garajea aukeran.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

**Tolosa.** Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean 120 m2-ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean. Pisu ederra. 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera, altua, berokuntzarekin. Garajea aukeran.

**Tolosa.** Montezkue. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Baratza eta txabolarekin. 204.345 euro.

**Tolosa.** Berazubi. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzaren jartzeko moduan. 237.400 euro.

**Tolosa.** Berazubi. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Guztiz berriua.

**Tolosa.** Zuberoa. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela dituen etxebizitza salgai. Erabat berriua. Igogailu eta berokuntzarekin.

**Tolosa.** Larramendi kalean. 96 m2-ko etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trasteleku eta garajea. Dena 330.560 euro.

**Txarama inguruan.** 100 m2-ko etxebizitza terrazarekin salgai. Egongela su bajurekin. Lur saila eta garajearekin. Oso egoera onean.

**Villabona.** Larrea. Eraikuntza berriko 80 m2-ko etxebizitza salgai. Garajea aukeran.

**Villabona.** Ebeondon etxebizitza garajearekin salgai. Pisu, 3 logela eta 2 bainugelarekin.

**Villabona.** Kale Berrian 30 m2-ko garaje itxia salmentan.

**Villabona.** Kale Berria. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Erabat berriua. Berokuntzarekin.

**Villabona.** Eraikuntza berrian 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela dituen etxebizitza salgai. Garajea aukeran.

TOLOSA ▶



Fotoa. WWW.TOLOSAKOUDALA.NET

**Udalak autoa partekatzen foroa jarri du abian berriki**

Ibilgailu partikularra beste herritarrekin konpartitzeko da; bere webgunean dago

I. ETXEBESTE

Tolosako Udalak autoa partekatzen foroa jarri berri du abian bere webgunean: www.tolosakoudala.net. Foro horrek tresna izan nahi du ibilgailu partikularra beste herritar batzuekin konpartitzeko eta beren eskaintza plazara ateratzeko. «Halaber, besteen autoa konpartitu eta gastuak erdibana egin ez garrario modu hori erabiltzeko prest leudekeenentzat zerbitzua eskaini nahi dugu».

## ZIZURKIL ▶ HIRIGINTZA



Ubare auzoko eraberritze obren aurreproiektuaren planoak. HITZA

# «Oso positiboak», Ubareko etorkizunari buruzko bilerak

## Udaleko ordezkariak eta herritarrek gaur izango dute hirugarren hitzordua

IMANOL GARCIA

Ubare auzoko etorkizuneari izango duen itxurari buruz eztabaidatzen ari dira asteotan, Zizurkilgo Udalak deitutako bilera irekietan. Hirugarren hitzordua gaur bertan izango da, 19:00etan, kultur etxean. «Oso positiboak izaten ari dira bilerak», azaldu dio Ainhoa Azpeitia Agenda 21eko teknikariak HITZARI. «Ez gaude ohituta horrelako bileretara, eta nolabait erronka bat da. 100 lagun inguru bildu gara bilera bakoitzean, eta hori kopuru handi bat da. Gainera, Udalbatzako ordezkariak gain, udal teknikariak —arkitektoa, aparejadoria, abokatua, udaltzainburua eta tokiko garapenaren teknikaria— ere izan dira, eta hori oso garrantzitsua da. Teknikariak jendearen kezka jaso ahal izan dituzte, eta bere alde-

tik jendeak teknikarien erantzunak jaso dituzte. Prozesu parte-hartzaile interesgarria izaten ari da».

Dagoeneko bi bilera egin dituzte Ubareko eraberritze proiektuaren inguruan. Lehenengoan, Udalak proiektuaren planteamendu orokorra egin zuen, zehaztapen garrantzitsu batzuk eginez. Esaterako, auzoaren eraberritzean obra batzuk itxita zeudela, Eusko Jaurilaritzak horrela ezarri dituelako: ibaiaren uharka handitu behar da eta ondoan pasealekuak joan behar du; horrek, beraz, behartuko du trafikoa-erentzako errepide bat egitea auzoko etxeen eta trenbidearen artean. Horregatik, bilera hauek barne urbanizazioaren nondik norakoa zehaztea dute helburu.

Bigarren bileran ere proiektuaren inguruan herritarrek zi-

### KEZKAK

Ubareko bizilagunei zalantza ugari sortu die etxeen eta trenbidearen artean egingo den errepide berriak

tuzten kezka erantzuten aritu ziren udal ordezkariak. Kezka horietako batzuk, adibidez, errepide berriaren inguruan ziren. Bizilagunek galdetu zuten ea guztiz itxia zen trafikoa-ren igarotzeko bide berria trenbide ondotik igarotzea. Rafael Poza udal arkitektoaren erantzuna baiezkoa izan zen. Bilera joandekoen beste galdera bat errepide berria eta etxeen arteko distantzia zen. Guztira, 11,9 metro izango ditu bide berriak (3,5 metroko ezponda, 6 metro izango ditu errepide be-

rak eta 2,4 metro aparkalekuak). Poza arkitektoak azaldu zuenez, etxeetarako distantzia hauen kokapenaren baitan dago; eta, beraz, gertuen dauden etxebizitzak 5 metrotara egongo dira, eta urrutien daudenak 30 metrotara. Obren ondoren izango diren aparkaleku kopurua da beste kezketako bat. Dirudienez, aparkaleku gutxiago izango dira eta horregatik bizilagunentzat aparkalekuak gordetzea da aurrekusi daitekeen neurrietako bat.

Beste zenbait zalantza ere azaldu zituzten herritarrek. Informazio hori guztia eta gaurko bileran egiten diren proposamenak bilduko dira arkitektoak egingo duen barne urbanizazioaren proiektuan. Partehartze prozesu honen garrantzia ikusita, Udalak parte hartzera gonbidatzen ditu herritarrek.

## ANOETA ▶

### Ipuin kontalaria bihar Udal Liburutegian

Ipuin kontaketa saioak antolatu ditu Udalak datozen asteetarako. Lehenengo saioa bihar bertan izango da. Pello Añorga izango da kasu honetan ipuin kontalaria eta LH1, 2 eta 3ko ikaleei eskainitako saioa emango du. Udal Liburutegian izango da hitzordua, eta 18:00etan hasiko da. Antolatzaileek puntualitatea eskatu diete joan behar dutenei.

## ANOETA ▶

### Bi mintegi KZgunean hil honetan

Anoetako KZgunean bi mintegi emango dira hil honetan. Bi ostegunetan izango dira. Lehenengo, *Komunikatu posta elektronikokoaren bidez* izenekoa, etzi egingo da, 10:00etatik 12:00etara. Hilaren 20an egingo da bigarren-*gas naturala interneten* izenekoa, 10:00etatik 12:00etara. Bestalde, KZguneko ordutegia urrian, honakoa izango da: astearte, asteazken eta ostegunetan 11:00etatik 13:00etara. Eta tutorean bisitaldiek, 09:00etatik 13:00etara, bat egingo dute mintegiaren egunekin.

## GIZARTEA ▶

### Arantzazura joateko autobusa antolatu dute

Urriaren 23rako Arantzazura joateko autobusa antolatu dute. Irteera Asteasutik izango da goizeko bederatzietan, eta ondoren geldialdiak egingo dituzte Anoetan eta Tolosan. Izena eman nahi duten interesatuek 943 65 27 00 telefono zenbakira deitu behar dute.

urik onena, alferrik galtzen ez dena

Noiz/Non: [www.kutxasocial.net](http://www.kutxasocial.net)




gizarte ekintza

ingurumena

Igo zaitez **kutxaBusera**, eta ingurumenarekin zintzoago jokatzeko eta eguneroko bizitzan ura aurrezten erakutsiko dizugu. Era dibertigarri, bitxi eta interaktiboan.

Tolosan

Urriaren 4tik 7ra **Foruen Plaza**

kutxa

www.kutxa.net

HITZA ▶



Busturialdean laster izango dute HITZA

Zazpigarren HITZA sortuko da laster, urtea bukatu baino lehen: BUSTURIALDEKO HITZA (Gernika, Bermeo, Mundaka, Ea, Elantxobe...). Hori iragarri, agerraldia egin zuten larunbatean, Gernikan, eskualdeko eukara elkarteek eta eragileek, eta EKTk (argazkian). Beraiek izango dira sortzaileak, HITZA dagoen toki denetan gertatu izan den bezala. Tolosaldea eta Leitzaldean, Oarsoaldean, Lea-Artibai eta Mutrikun, Urola Kostan, Goierri eta Donostian daude gaur egun HITZAK, eta denen artean ia 50.000 aleko tirada dute egunero. TXOMIN PEREZ

BIDEGOIAN ▶ GIZARTEA



10 kilo onddo jaso dituzte Ernion

M.S.S. ▶ Perretxiku mordo omen dago gure mendietan orain, eta horren lekuko dira Bidegoiango Urritz baserrikoak. Julen Intxausti eta Irati Elozegi lehengusuak pozik ageri dira argazkian 10 kilo onddo tartean. Ernio mendia inguruan bilduak omen dira denak eta, horien artean handiena, kilo bat eta 300 gramo pisatzen dituen eta 92 zentimetroko zirkunferentziadun onddo erraldoia. Sasoiko azkenak ote? HITZA

IKAZTEGIETA ▶ GIZARTEA



Ikaztegieta haurrek hain estimatua zuten zuhaitzaren azken irudietako bat. HITZA

Eliza ondoko sahatz negartiari adio

Herriko haurrak jokorako txoko bezala erabili ohi zuten eta, orain, hainbat herritar «nahiko triste» daudela diote

MARTA SAN SEBASTIAN

«Proiektuak egiten dituzten kanpoko enpresek ikur batzuk salbatzen saiatu beharko lukete». Hauxe bat azken egunotan Ikaztegieta zenbait gurasoren ahotatik entzuten den esaldia. Izan ere, herritarrek betidanik San Lorentzo elizaren alboan ikusi duten sahatz negartia bota berri dute. Orain sahatz negartiaz gain, Ikaztegieta haurrak daude negarti, euren jolasleku kuttuna baitzen zuhaitza eta inguruak.

Elizaren kontra aterpe bat eraikitzeko asmoa dago, eta horretarako, frontoi zaharra bota dute. Alboan zegoen herria hain estimatua zen zuhaitza, eta, ondorioz, hau ere bota beharrean aurkitu da Udala.

Haurrak sahatz negartian eta frontoi alboan zegoen parkean jolasean ibili ohi ziren eta

obra hauek eragozpenik sor ez zitzaten, parkeko jolasak polikiroldegiko zelaira eraman zituzten. Sahats negartiaren kasuan, aldiz, betirako agur esan beharrean aurkitu dira ikaztegieta.

Herriko hainbat gurasoren ustetan, «gure lekuak desagertzten ari dira eta herriak izaera

gabekoak bihurtzen ari dira». Euren iritziz, Udalak herritarrei galdetu beharko lieke zer konterbatu nahi den eta, era berean, umeei kasu gehiago egin beharko litzaieke. Aterpe berria herritarrentzat «leku berezi» bihurtzea espero dute, baina Ikaztegieta paisaiaren ikur bat galdu dutela uste dute.

**ABURUZA** Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

**Urr 7 ost**

www.sala31.com  
**LEKUNBERRI**

**BERRI TXARRAK**

Irekiera 0:00etan

Aurretik 9 €  
Lehiatilan 12 €

## BERASTEGI ▶

## Gaur hasiko dira gimnastika eta aerobik klaseak



Gaur hasiko da aerobika. N.L.

Muñagorri Guraso elkarteak antolatutako ikastaroak gaur hasiko dira. Mantentze gimnastika asteartetan eta ostegunetan izango da, 18:00etatik 19:00etara, eta aerobik ikastaroa asteartetan eta ostegunetan, 19:00etatik 20:00etara. Bestalde, areto dantzen ikastaroa antolatze-ko asmoa dute, beraz, animatzen direnek guraso elkarte-aren eman beharko dute izena.

## IBARRA ▶

## KZguneak urrian hainbat ikastaro eskainiko ditu

KZguneak hainbat ikastaro eskainiko ditu urrian. Bihar, 17:00etatik 19:00etara, *Ego-kitu zure enpresa LOPDra* ikastaroa izango da. Urriaren 19an, 16:00etatik 18:00etara, *Gizarte Segurantzarekin tramiteak on line egin itzazu* ikastaroa; urriaren 24an, 16:00etatik 18:00etara, *Zure enpresaren web orria egin ezazu*; urriaren 25ean, 16:00etatik 18:00etara, *Zure enpresaren web orria interneten publikatu ezazu*; eta urriaren 26an, 16:00etatik 18:00etara, *Zure enpresaren web orria promozionatu eta edukiez bete* ikastaroa.

## IBARRA ▶ KULTURA



1974. urteko dantzari bat. I. TERRADILLOS



1974tik 2005era bitartekoak daude ikusgai. I. T.

## Alurr dantza taldearen Kultur Astea abian

Argazki erakusketa egongo da aste osoan; proiektzioa, euskal tresnen erakusketa eta jaialdi berezia izango dira



Alurr dantza taldeko mutilen taldea emanaldi batean. I.T.

## IÑIGO TERRADILLOS

Atzo eman zion hasiera Ibarra-ko Alurr dantza taldeak 10. urteurrena dela-eta antolatu duen Kultur Asteari.

1974 urtetik 2005. urtera bitarteko argazki esanguratsuenak bildu dituzte erakusketan; horrela, urteak pasatu ahala taldeak izan dituen aldaketak ikusi ahal izango dira aste oso-

## KULTUR ASTEA ▶

## ASTE OSOAN

**Erakusketa.** Alurr dantza taldearen argazkiak izango dira ikusgai Kultur Etxean.

## GAUR ETA BIHAR

**Proiektzioa.** 10 urteko ibilbidearen proiektzioa ikusgai Kultur Etxean. 18:00etatik 19:30era eta 19:30etik 21:00etara.

an Ibarra-ko Benito Izagirre kultur etxean. Aldaketa horiek irudietan ikusteko aukera ere izango da, gaur eta bihar, proiektzio baten bidez; eta, ostiralean, Jon Garmendiak eskainita, euskal tresnen erakusketak izango dira.

Egun berezia larunbata izango du Kultur Asteak. Izan ere, erromeria izango da goizean gaztetxoekin, eta arratsaldean jaialdi berezia egingo dute dantza saio eta omenaldiekin.

## iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88

INMOBILIARIA ETA ASEGURAK  
**ETXESAGASTI**

**Albiztur.** Baseria salgai. Etxesagasti. 943 69 68 56.  
**Andoain.** Berrituriko etxebizitza salgai. 3 logela. Sukalde handia.

Oso argitsua. Etxesagasti 943 69 68 56.  
**Larraul.** Azken etxe atxikia salgai. Etxesagasti. 943 69 68 56.  
**Tolosa.** Gazteentzako egokia. Logela bat eta terraza dituen etxebizitza. Etxesagasti. 943 69 68 56.  
**Tolosaldea.** Aukera ezin hobea. 100 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza ederra salgai. 34 m<sup>2</sup>-ko garajearekin. Berria bezala. Etxesagasti. 943 69 68 56  
**Villabona.** Berrikuntza. Erdialdean kokatua, 2 logela dituen etxebizitza salgai. Eraiki berria. Ezin egokiagoa. Oso eguzkitsua. Oztoporik gabekoa.

Trastelekuarekin eta garajea aukeran. Etxesagasti. 943 69 68 56.  
**Villabona.** Eraiki berria. Kapritxoz jarria. Garajea aukeran. Etxesagasti. 943 69 68 56.  
**Zizurkil.** Eraikuntza berria. 113 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza paregabea. Trastelekuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.  
**Eskaera handia** dela eta, etxebizitzak, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazari eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan Gipuzkoan. Itxaron zerranda dugu.

## IBARRA ▶

## 4-3 galdu du Ibarrek Arnedoren aurka

Ibartarrek lehenengo partidano baino joko hobea egin arren, ez zuten irabazterik izan

## ERREDAKZIOA

Ligako bigarren partidano ere punturik batu gabe geratu da etxeko taldea. Kasu hone-tan, Jose Manuel Tobias prentsa arduradunak azalduko-aren arabera, lehenengo partidano baino itxura hobea eman zuten, baina Arnedo-ren aurkako norgehiagoka 4-3ko emaitzarekin galdu zuten ibartarrek.

Lehenengo minutuan aurreratu ziren Arnedokoak. Ibarrek kornerra atera eta atezainak baloia hartu ondoren berehala sakatu zuen lu-zean, ibartarrek defentsa us-tekabean harrapatuz eta ba-loia sare barruan sartuz. Ibarrek ez ziren kikildu, eta bosgarren minutuan ber-dindu egin zuten markagai-lua Pradosen sake baten on-dorioz.

Jokaldi horretatik minu-tu bat baino igaro ez zenean ibartarrek aurretik jarri zi-ren, baina segituan sartu zu-ten gola errioxarrek. Horrela, 2-2ko emaitzarekin iritsi zi-ren atsendaldira. Lehenen-go zatian ez zen talde bat bestearen gainetik egon; be-raz, gauzak gehiegi aldatuko ez ziren susmoa zegoen.

Bigarrenaren bere horretan mantendu zen bi taldeen joko. Baina, hala ere, erri-oxarrak aurretik jarri ziren bosgarren minutuan, eta hu-rrengo jokaldian aldea areo-gotzea lortu zuten, 4-2koa egin baitzuten. Ibarrek saiatu ziren partidari buelta ematen, baina gol bat egitea baino ez zuten lortu, berriro ere punturik gabe, beraz.

## ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Inketa.** Sar zaitzez eskualdeko egunkariaren web orrian eta eman zure iritzia ondorengo gaiaren inguruan. Eskualdeko merkatariek kanpaina handiak egin dituzte erosketak bertan egin daitezten. Non egin dituzte zure erosketak? ▶

POLITIKA ▶



## Euskal presoen Euskal Herriratzearen aldeko elkarretaratze jendetsuak

J. Astibia ▶ Pasa den ostiralean egin ziren bi eskualdeetako ohiko lekuetan ere hileroko azken ostiraleko elkarretaratzeak, *euskal presoak Euskal Herrira* leloa buru zutela. Hilaren 30ko honetarako, Etxerat-ek ez ezik, besteak beste, Euskal Herriko gehiengo sindikalak egindako deialdiari jarraituz hainbat eta hainbat herritarrek eman zuten beren atxikimena, «euskal presoek sakabanaketa bukatzea, Presoen

Kolektiboa Euskal Herrira ekartzea, beren izaera politikoa aitortu eta ezartzea, eta konponbidea bilatzea, ez dela senideen egitekoa bakarrik, gizarte osoarena baizik», aldarrikatuz. Horrela bada, esate baterako, Leitzan—ezkerreko irudia—60 lagun elkartu ziren, Etxerat-ekoekin batera LABeko ordezkariak ere bertan zirela; eta Aduñan, berriz, —eskuineko irudia— beste 15 lagun elkartu ziren. JAIONE ASTIBIA / HITZA

LEITZA ▶ FUTBOLA

## Ia-ia irabazian, baina azkenik berdinketa

Gazte Berriak-en aurkakoa 0-1 irabazten joanda, banako emaitza azken minututan erabaki dute, puntuak banatuz

JAIONE ASTIBIA

Aurrera partiduaren lehen minutuetatik irabazten hasi zen, eta aldeari indartsu eta joko onarekin eutsi arren, azken minutuetan lortu zuten antsoaindarrek partiduaren berdinketa: Gazte Berriak 1-Aurrera 1 bukatu zen larunbateko saioa, talde bakoitzak horrela puntu bana erantsiz bere kontuari.

Partidua hasi eta laster, 3. minutuan, kórner baten erdiraketa buruz jo eta baloia sareetara bidali zuen Eneko Barberiak,

0-1ekoa lortuz. Emaitza honi eutsi zioten leitzarrek, ia partidu osoan, jardunaldiko 3 puntuak lortzeko intentzio osoz, zelaian nagusi izanez eta zuhur jokatzuz, batez ere lehen zatian.

Bigarrenean, bertakoak emaitzari buelta eman nahiaren nahiaz, joko hobexegoa egin zuten, eta leitzarren ate ingurura iritsi ziren ale bakanetako batean, partidua bukatzeko 4 minutu falta zirela, berdinketaren gola egin zuten. Aurrerakoak gehiagotan iritsi arren aurkariarenera, aukera oso argi

parea huts egin zituzten: baloiak ez zuen sartu nahi.

Kanpoan garaipena ia lortu zuten, eta horrek uzten duen gazi-gozoarekin baina, hala ere, «gustura» itzuli ziren Leitzara: «Taldea egiten ari da, tinua hartzen, eta egiten den lanarekin aurrera jarraitzeko indartsu», zioten ordezkariak.

Larunbatean, bestalde, Aurrerako jubenilen taldeak ere bere etxeko lehen partidua jokatu zuen. 2-3 galdu zuen Zangotzako Kantolagua taldearen aurka.

LEITZA ▶ AIZKORA

## Beñat Saralegik 4. lekua lortu du gazteen mailan

Aurkarien abiada ikusita, hiru 45 ontzako 6,17-tan ebakiz, «blokeatuta» gelditu da

J. ASTIBIA

Larunbatean jokatu zen Iganztzin Nafarroako Aizkolari Gazteen II. San Migel Saria, eta Beñat Saralegi leitzarra 4. lekuan gelditu zen. Julen Kañamares berriozartarrak irabazi zuen; 45 ontzako hiru enborrak ebakitzen 6 minutu eta 17 segundo motz behar izan zituen aizkolariak.

«Epaileak ziztua jo eta sekuleko abidan ekin zioten lanari», halaxe adierazi zion atzo bertan Saralegik HITZARI. Gazteak —parte-hartzaileek 16 urtez behituk dituzte— zioenez, «aurkarien aizkorakada

azkarrak entzunda», haien erritmoan ari beharrez, «ez dakit urduritasunagatik edo, blokeatuta gelditu nintzen, ez nuen lanik egiten», argitu zuen. «Gaizki aritu nintzen, baina atzenak ere ez gara gelditu eta». Aurkarien lana oso ona izan zela zioen. Berak espero bezala, «Kañamares bizkor etorri zen eta hark berea egin zuen», adierazi zuen.

Kañamares bertatik jarraitu zion Garikoitz Larretxeak, (6min. 34 s.). 8,28 behar izan zituen Jimenezek; 8,55 Saralegik berak; Oihan Larretxeak 9,01; eta Mindegiak, seigarren egin zuen 11,35rekin.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

# Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldecohitzza.nfo

hilberriak ▶

### Biembe Lopez Itxaso

Beti gure artean izango zara, adiskide.  
Gero arte.

Ibarra Argi-Ianak S.L.

IBARRA, 2005eko urriaren 4a



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urriaren 4a, asteartea ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Ibarra.** Belabietan gimnastika erritmikoko ikasturte berria abian da. Izena eman nahi duenak 943 67 15 44, 629 11 20 61, 943 11 70 23 eta 943 01 94 22 telefono zenbakietara deitu besterik ez du.

**Ibarra.** Alurr dantza taldearen hamar urteetako ibilbidearen proiektzioa. Gaur, 18:00etatik 19:30era; bihar, 19:30etik 21:00etara. Kultur Astearen baitan.

**Leaburu.** Euskal dantzak eta gimnastika ikastaroak eskainiko dituzte urrian hasita. Izen-ematea, 943 67 59 31 zenbakian.

**Tolosa.** Gerontologikoaren Aldeko Plataformak berriz ere ekingo die, uda ostean, asteroko bilereki eta horietako lehena gaur izango da, 19:30ean, Kultur Etxean, Tolosako Gerontologikoa itxi zutenetik gaurdaino, egoera berriaren berri emateko.

**Villabona.** Oinkari dantzari taldeak bi ikastaro antolatu ditu: euskal dantzak 3 urtetik gorako haur eta gaztekoentzat eta fandango eta arin-arina adin guztietakoentzat. Izen-ematea, Txermin ikastolako ganbaran, 660 13 93 80 telefono zenbakian edo harremanak@oinkari.net helbidean.

**Zizurkil.** Ubare auzoa eraberritzeko herritarren parte-hartze bilera. 19:00etan, Atxulondo kultur etxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.  
**Areso.** Goizueta, F. Loidi etxea. 112.


**IRRATIA**

**Txolarre irrattia**

(107.5 eta 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa.  
11:00etan eguraldia Joxe Landarekin; Hitzaren errepasoa, oharrak...  
12:15ean, agenda; elkarrizketak, iritziak, era guztietako albisteak...  
13:00etan, Ezkutuko koloreak irrati nobela; 13:15ean, lehiaketa eta disko eskainiak.  
19:00-21:00. Tolosaldeko ahotsa, errepikapena.  
22:00-23:00. Arkako show musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Halako irudi berezia izan zuen atzo goizean eguzkiak. I. TERRADILLOS



Teleskopioen bidez irudi bitxiak lortu zituzten Uzturpen. I. T.

# Eclipseak txundituta

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶** Bi eskualdeetako haurrek jakinmin handiz jarraitu zuten atzo eguzkiaren eklipse partziala, betaurreko ilun bereziak jantzita



Ibarrako Uzturpe ikastolako haurrek, betaurreko ilunak jantzita, eguzkiari begira. INIGO TERRADILLOS

**ERREDAKZIOA**

**Z**uzenean begiratzea arriskutsua zela bazekiten. Baina ez zuten eguzkiari begiratu gabe gelditu nahi. Izan ere, eguzkiaren eklipse partzial bat ez da egunero ikusten. 1996an izan zen azkena, eta 2026. urtera arte itxaron egin beharko da hurrena ikusi ahal izateko. Ikusminez, jakinminez, urduri zeuden Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikastetxe-etako haurrek.

Ibarrako Uzturpe ikastolakoek, esaterako, Aranzadi Zientzia Elkarte kide eta bertako irakasle Kristina Zuzaren aholkuei jarraituta ikusi zuten eklipsea. Betaurreko ilun bereziak jantzita begiratu zioten izarrari. Teleskopioa ere erabili zuten, argia neurtu, argazkiak atera... Poz-pozik mintzatu ziren HITZAREkin, eta eklipsearen uean nabaritutako hotza ere aipatu zuten.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Naroa Izagirre Briones.  
Gaur urtebete. Zorionak Asier, ama eta aitaren partetik.

**HITZA, zorion agurren tartea**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
**HITZAren egoitzetara:**  
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA** • Udaletzeko bulegoa - **LEITZA**  
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!